

@@@IRAGARKIA, 1247/2011 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren administrazio-
espedientea bidali egin dela jakinarazteko eta hirugarren interesdunak epatzeko
dena.@@@

Hirugarren interesdunei jakinarazten zaie Kristau Eskola Elkartek, Irakaskuntza Zentruen Elkarte Autonomoak -AICE IZEA- eta Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartek 1247/2011 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2011ko martxoaren 24ko Aginduaren aurka. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunduetan Batxilergoa eta Heziketa Zikloak egiteko 2011-2012 ikasturterako eskabideak aurkezteko eta onartzeko epeak zehazten dira eta, halaber, ikasleak onartzeko jarraibideak onartzen.

Beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1995 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, interesdun guztiak epatzen dira, eta ohartarazten zaie bederatzi egun dituztela, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, aipatu prozedura judizialean agertzeko eta pertsonatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 23a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.